



Herriak hala eskatu duen arren, Leitzako udaletxean ez dute ikurrina jarriko

MOZIOAK ▶ Aralar eta EA-k beren proposamena onartu zuten, eta Larrain plataformakoan abstenitu

BALKOIAN ▶ Zenbait herritarrek ikurrina jarri zuten udaletxean bilkura egiten ari zen bitartean ▶ 7



Ikurrin asko eraman zituzten. HITZA



Euskal presoen borrokari babesa adierazteko, N-1 erreperidera irten dute

TOLOSALDEA ▶ Euskal preso politikoak Espainiako eta Frantziako kartzeletan egiten ari diren borrokaldiari babesa adierazteko, erreperidera irten zuten atzo dozenaka lagunek Tolo-saldeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak egindako deia irerantzuz. Alegia eta Ikaztegieta inguruan bildu zirenek eta Villabona aldean elkartu zirenetako bost lagunek Guardia Zibilarekin arazoak izan zituztela salatu dute. Izan ere, identifikatu egin zituzten haietako batzuk eta haien kontrako salaketak jarri dituztela esan zieten, «bazterbidea oztopatzen ari zirelako». IMANOL GARCIA ▶ 5

J. JESUS SUKUNTZA ▶ IBILTARIA

«Okerrena haizea izaten da, Iruñetik haruntzako»

Urteak daramatza leitzarrak Xabierraldia oinez eta mendiz mendi egiten ▶ 2-3



Juan Jesus Sukuntza. J. ASTIBIA

HITZA-KO JERTSE BERRIA ESKURA

Gertuen duzun egoitzan lor dezakezu Zatoz zurearen bila!

TOLOSA • LEITZA

www.saldias-miguel.com

Saldías Miguel

Kotxe aseguruetan %60 ko beherapenak

- AUTOAK
- ENPRESAK
- AUTONOMOAK
- MOTOAK
- DENDAK
- MOTA GUZTITAKO
- ETXEAK
- ISTRIPUAK
- ASEGURUAK

Nafarroa Etorbidea, 12 behea • 20400 Tolosa • Tel. 943 651189/ 943 653462 - Faxa: 943 653462



Emakumearen Eguna gogoan izan dute eskualdean

ASTEKO IRUDIA ▶ Asteartean, martxoak 8, Nazioarteko Emakumeen Eguna izan zen eta eskualdean ere aldarrikapen eta ospakizun ugari izan ziren. Bazkari-afariekin batera, xake

erakustaldia, hitzaldiak, filmak, kontzentrazioak, antzerkia... izan ziren. Argazkian, 2005eko Emakume Martxako plataformaren aurkezpen ekitaldia. IMANOL GARCIA



ANJELES IZTUETA
HEZKUNTZA SAILBURUA

«0-3 urte bitarteko eredu finkatzea lan zaila izan da; esfortzu handia egin da Patzuergo sortzeko»



ASIER IZAGIRRE
ESKALATZAILEA

«Bigarren horman zabaldu genuen bidea behetik goraino; poza ematen du horrek»

JUAN JESUS SUKUNTZA ▶ IBILTARIA

«Mendizkoa dena da polita, paraje eder asko daude»

Leitzar honek urteak daramatza Xabierraldiko bidea egiten, Leitzatik hasita eta mendiz; oinez, noski

JAIONE ASTIBIA

Tenore hauetantxe ari dira egiten Xabierraldiak: Xabierko gaztelura erromes joaten da jende asko eta asko, fedea mugituta edota ibiltzeko zaletasunak. Gehienak Iruñetik edo Zangotzatik ateratzen badira

ere, Juan Jesusek urteak daramatza Leitzatik hasita joanez eta mendiz, gainera. Aurten ez du joaterik izanen, osasun aldetik oso ongi ez dagoelako, eta mendian oraindik elur asko dagoelako, bestalde.

Nola hasi zinen halako erro-mesaldi hau egiten?

Ikasten ari nintzela, lagun batek, Lekunberriko Mikeok, esan zidan nola egiten zuten ibilaldi hau, eta besterik gabe, joatea pentsatu genuen. Geroztik, 19 urterekin, Joanito Malkorrarekin hizketan 'eta Leitzatik joaten bagara?' esan zidan eta 'konforme'. Halaxe, Leitzatik mendiz joan ginen Iruñearaino eta handik, normal, errepedez. Orduz geroztik urtero joaten naiz.

Zenbat aldiz joan zara?

Urtero joaten 19rekin hasi nintzen, eta 47 ditut, pentsa! Bi alditan huts egin dut, hurrengoarekin hiru: soldadu nengoela bat eta lanean kanpoan suertatu nintzelako, bestea. Gainera, urtero joan naiz.

Beti mendiz joan izan zara?

Bai. Lehendabiziko hamar bat urtetan gizonen Xabierraldira joan nintzen; gero, arrebak joaten hasi zirenean, baina Iruñetik, nik bezperan egin dut Iru-

ñerainoko bidea, Leitzatik hasita mendiz, eta biharamonean elkarrekin joan Xabierreraino, ohiko bidetik. Baina, askotan, gizonzkoenera joan izan naiz aurrena, hankak ohitzeko-eta; gero, emakumezkoenera, Leitzatik hasita.

Zenbat bide dago hemendik?

Errepedez joanda 103 kilometro daude. Iruñetik 52. Baina Leitzatik Iruñera mendiz egiten dut eta 9 ordu behar dira hara iristeko, ibilian. Aparte, atxoteko, jateko, aldatzeko... igarotzen den denbora gehitu behar zaio horri.

Zer ibilbide egiten duzu?

Leitza, Beruta, Jaunsarats, Jaben, Etxaleku, Oskoz, Muskitz, Behorburu, Ollakarizketa eta Berriozar herriak zeharkatzen ditut.

Laguntzarik izaten duzu?

13 alditan izan dut laguna: Malkorra, Txoko, eta ilobak. Ibarrran bizi den Iñaki Garmendia eta hemengo Xabier Telletxea eta Josu Bildarratz. Eta azken urteetan, arrega eta bere senarra Oskozera joaten zaizkit bazkariarekin eta handik aurrera arrega izan dut bide-lagun. Gero, Iruñera bila joaten dira. Biharamonean, 12-13 lagun joaten gara, familia osoa ia. Monrealera allegatzerako, bazkaria zain edukitzen dugu. **Prestaketarik egiten duzu?** Hamabost egun aurretik edo,

errepedez ibiltzen naiz: Goizuetara, Doneztebera... askotan, *sparring*-a Malkorra izaten dut. Egun bat edo beste itxoin eta bideari ekin. Mendiz errezaio ibiltzen da. Errepedea da gogorrena.

Zer oinetako erabiltzen duzu?

Mendirako, botak. Eta asfaltorako, zapatilak, gogor samarrrak izan daitezela. Eta garrantzitsua da, galtzerdiak maiz aldatzea eta hautsak botaz, hankak lehor mantentzea. Eguraldi beroa da txarrena, izerdiarengatik hankak busti eta urraduraren bat edo ateratzen delako, baina bestela ohituta nago.

Urteko tenore honetan, giroa beti ez da ona izanen ere?

Denetik tokatu zaigu: beroa, hotza, kazkabarra, elurra... Baina okerrera haizea izaten da, Iruñetik haruntzako lautada horietan. Hori bai, normalean atzetik jotzen du eta beroki on batekin, eta gero zapela. Garrantzitsua da hori: haizeak erabat kalparrak tiratuz, buruko mina jartzen da, bestela.

Hara ailaletakoan zer sentitzen da?

Poza. Hainbeste urtetan joanda, ohitura hartu dut eta urte urte joateko beharra nabaritzen dut. Aurten ezin naiz joan eta pena dut, bai.

Eta fisikoki ondorenik izaten? Bai, pixka bat bai, airubetak

hilberriak ▶ eskalak hartzen dira: 19:00ak arte • 687 53 02 58 • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

✝ Maria Salvarredi Olaechea (JOSE M. LIZARZAREN ALARGUNA)

Atzo hil zen, 83 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian bego —

Bere animaren zuzendaria: Joxi Eguskitza; seme-alabak: Felisa, Sabina eta Carlos Inza, Maria Luisa eta Manuel Balza, Felix, Asun, Eustakia eta Jesus Mari Beguiristain; ahizpak: Francisca eta Teresa (lekaime); ezkon anai-arrebak: Felisa Saizar (Juan Miguel Salvarrediren alarguna), Maria Echeverria (Francisco Salvarrediren alarguna); bilobak: Josune, Iñaki eta Izaskun, Amaia eta Aintzane, Itxaso eta Arrate; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR IGANDEA, arratsaldeko BOSTETAN, BERASTEGIKO SAN MARTIN parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

BERASTEGI, 2005eko martxoaren 13a

IRITZIA ▶ ENEKO KARRERA (GIPUZKOAKO EHNE-KO LEHENDAKARIA)

Zuria eta beltza: Iparlaten grisik ez

Esnea zuria dela, baita elurra ere. Joan den otsailaren 24ean, Gasteizen EHNEK burutu zuen manifestazioan — Eusko Jaurlaritzaren nekazaritza politika salatzen burutu zena— arabar baserriar batek bere amak elurra azkenean beltza zela zioela esan zigun. Hark bai, bazekien ondo zein zen elurraren beste kolorea. Urnietan pasatu ditugun hamar egun hauetan, askotan gogoratu dut Pepeluk esandakoa, eta, egun hauetan, esneak ere baduela alderdi beltza erakutsi digute zenbaitzuek.

Gure ekintza, 300.000 litro esne zuri geldiarazi genituenean hasi zen. Esne frantsesa. Esne zuria, bai, baina hemengo baserriarrei ondorio beltzak ekarri dizkion esne. Eta ez baserriar frantsesen erruz, baizik eta Iparlateko zuzendariak, frantsesek esnea soberan dutela aprobetxatuz, hemengo baserriarrei prezioa bajatu digutelako. Goikoetxea jauna, esne frantsesa garesti egon den garaian, zergatik ez diguzu igo guri ere prezioa?

Hamahiru esne zisterna geldiarazi genituen fabrika atarian. Kasualitatez, hau ere zenbaki beltza. Esne zuriz betetako zisternak, baina ostegunean, Eusko Jaurlaritzak bidali zituen ertzainek aurpegia beltzez

zuten estalia, nahiz eta laguntzaile ekarri zuten tankea zuria izan. Hau da, arazo zuri bati aurre egiteko, soluzio beltza bidali zigun Jaurlaritzak. Hala eta guztiz ere, Nekazaritzako sailburuorde den Asier Albisu jaunak bere aurpegi zuria ere erakutsi zigun. Ostiralean barkamena eskatu zigun Ertzaintzaren jokaerarengatik, baina larunbatean, berriz, *beltzez* betetako hiru furgoneta zuri bidali zizkiguten, arma beltzez josita, hortzetaraino. Balza jauna, baserriarrek ez gara gaizkileak, eta hori badaki ondo euskal gizarteak!

Egun gogorak pasatu ditugu. Egun beltzak. Esne zuri, elur zuri, izotz zuri artean. Eskerrak, ostegunetik aurrera karpa zuri bat ere eduki dugun. Ahalegin izugarria egin dugu baserriarrok, eta ziur nago, hau ez dela alferrik galduko. Egun hotz haue-

tan jendearen berotasuna sentitu ahal izan dugu. Baserriarrena eta kaletarrena, eta horri esker, epelago joan zaizkigu egunak.

Agerian geratu da, behintzat, EAJ-PNV alderdiak urte askotan landu duen nekazaritza politikak emaitza beltzak ekarri dizkigula euskal baserriarroi, eta, zuriak, berriz, gure bizkargain eraiki dituzten negozioei. Ohi duen bezala, oraingoan ere baserriarren eskaerei entzungor eginez, Asier Albisu jaunaren adierazpenak entzun ahal izan genituen joan den larunbatean, *Landa berri* programan. Euroari eta dolarrari buruz aritu zen. Albisu jauna, baserriarrek pezetari buruz ari gara!

Bi pezeta bajatu nahi dute esnea. Pezeta bat onartuko genuela esan genuen lehenengo egunetik, baina Iparlateko zuzendari den Jose Manuel Goikoetxearentzat gris kolorekerik ez da existitzen. Zuria edo beltza: zuria berarentzat eta beltza, berriz, guretzat.

Idatzi hau bukatzen ari naizela, Ibarretxe lehendakariak gaur bertan Karrantzan Kaiku-ko planta berria inauguratu duela jakin dut. Inaugurazio kontuak hauteskunde garaian izaten dira normalean. Gure bozka eskuratuko duzulakoan? Non egon zara hamar egun hauetan?

PREZIO JAITSIERA

«Bi pezeta jaitsi nahi digute esnea; pezeta bat onartuko genuela esan genuen lehenengo egunetik, baina ez dago grisik Iparlateko zuzendariarentzat»

UZTURRETIK ▶
AMAIA AGIRRE

Baneki

Askotan galdetu didate noiz sentitu nintzen lehen aldiz bertsolari. Horrelakoetan, ez dut sekula jakin zer erantzun, eta galdera-erantzun horri bueltaka harrapatu dut gaur ere nire burua. Nik nire burua ez dut inoiz bertsolari moduan aurkeztu. Halakoren arreba, ahizpa, alaba, laguna... Halako lekuko langilea... Halako ikasketak egin dituen... izan naiz beti.

Inoiz sentitu naiz, hala ere, bertsolari. Zein mailatako bertsolaria sentitzen naizen, ordea, beste kontu bat da. Saio batean gustura aritu ondoko sentsazioa ederra da, urrez ere ordaindu ez daitekeen atsegina. Mahai baten bueltan oholta gainean baino erosoago sentitzen naizela ere egia da.

Filosofatzeko eta bost euroko hitz potoloekin jolasteko tentazioari ezin izan diot eutsi, eta azken egunotan oholta gainea nahiz mahai baten bueltako bizipenak zuenganatu nahi nituzke.

- Bertsuaren arrakasta komunikazioaren baitan dago, baina batzuetan bertsolari eta entzulearen arteko bidea hieroglifiko bat da.

- Bertsuaren pliegetan galdetzen gara sarri baina hala ere ideiak ezin tolestu aritzea nahikoa sufrikario bada.

- Ausardia mikrofonoaren zirrikituetatik ihesi doakit hasierako agurra bota aurreko une horietan.

- Morfinak ere ez luke arinduko azken puntuak ihes egitean sentitzen den mina.

- Inurri bat negurako beza-la prestatzen dugu a(ha)lmazena txapelketa nahiz saioetarako, eta gero nerbio uholde batek dena hankaz gora bota diezazulke.

- Zergatik ez dira egun denak berdinak? Konplizitatearen bila hasi eta errukia eskuratzen duzunean zer egin behar da? Dena beltz ikustea ez da samurra, baina zuri geratzea ere ez da ederra izaten. Bihozkaiek eta txaloeak bat egiteko formula zein da? Badut zer ikasi eta nondik hasi!

Ez dakit irakurlea asebate dudan, nik behintzat nire barrua hustu dut. Bertsotan esaten den moduan: hurrengoan gehiago eta hobeto.



PERTSONALKI ▶

▶ Leitzako Eztebeneko Bordan jaiotako azkena ▶ 1957ko apirilaren 1ean ▶ Ingenari Tekniko Industrialia ikasketaz eta lanbidez, txapak modelatzeko makinak egiten dituen Diper enpresan ▶ Ezkondua eta bi seme-erren aita

Zaletasuna? Mendia eta kirola. **Gustuko jakia?** Haragia. **Eta leku bat?** Leitza. **Aisialdian?** Argazkigintza, astronomia... **Saltsero samarra** naiz. **Zerk amorratzen zaitu, egiteko-tan?** Gezurak.

HAIZEA

«Okerrera haizea izaten da, Iruñetik haruntzako lautada horietan; hori bai, normalean atzetik jotzen du, eta beroki eta zapela on banarekin nahikoa izaten da»

egun pare batez edo. Baina gaitza eta ozpinarekin bainu beroak hartuz, erremedioa badu. Lehen gogorrago egiten zen ondorena, igandera arte itxoin behar izaten zen eta gaua autoan egiten zen.

Hainbeste urtetan, halako ibilaldiak eginez, bitxikeriaren

bat gertatu edo ikusiko zenuen, ziurrenik...

Behin, auto batek neska bat airean botatzen ikusi genuen; beste behin Behorburun sasi tartetik ardi bat atera nuen, trabatuta zegoen lekutik; Berutan axuria jaiotzen ikusi... Horrelakoak. Apartekorik...

Ibilbideko lekurik politenak zein dira?

Mendizkoa, dena, baina hemendik Berutarako puxka politena: Ireber elurtuta ikustea. Behorburuko San Bartolome ermita eta hango ikuspegia: Iruñea osoa ikusten da, ustez berta, baina oraindik 15 kilo-

metro gelditzen dira; Pirinioak ere ikusten dira, beti elurtuta. Oso paraje ederrak denak.

Hurrengo urtean joanen zara?

Bai. Oinez. Ahal badut, behinik behin, bai. Aurten autoz joanen gara, okerrik ezean; txirrinta daukat.

FUTBOLA ▶

MADDI SOROA

Urteak dira Euskal Herriko nesken areto futbol taldeek Euskal Seleizioan parte hartzeko aukera dutela. Zorionez, beste kirol asko eta askotan ez bezala, Euskal Herriko areto futbol jokalariek Euskadiko Seleizioarekin jokatzeko aukera dute duela pare bat hamarkadaz geroztik.

Aurtengoan, Maider Lopez, Nerea Salazar eta Miriam Arana —lehenengo biak tolosarrak, eta Arana Villabonakoa— izan dira aukeratuen artean. Gogoratu, hirurak Ohorezko Mailan diharduen Hegoalde areto futbol taldeko jokalariek direla. Lopez eta Salazar beterranoak dira selekzioan, hamaibost urte baitaramatzate gutxienez selekzioarekin jokatzen. Miriam Aranak, ordea, aurtengoa izan du lehenengo aldia Euskal Seleizioan. Azpimarratzekoa da Hegoaldeko hiru jokalariek titular moduan aritu direla Espainiako Txapelketan iraun duen bitartean.

Aurtengoan, Pinilla izan da Euskadiko Seleizioako hautaketa eta entrenamendu lanetan aritu dena. Pinilla, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) mutilen areto futbol taldeko entrenatzailea ere bada. Aurtengoa, ordea, Autonomi Erkidegoen arteko Txapelketan aritu da buru-belarri.

16 jokalarik hautatu zituen guztira Pinillak; Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako jokalariek zirelarik guztiak ere. Horien artean ziren, noski, Maider Lopez, Miriam Arana eta Nerea Salazar. Bestalde, Ohorezko Mailan diharduen Goierri taldeko hiru jokalarik, Bilboko GSI taldeko beste hiru edota Gasteizko hainbat jokalarik hautatu zituen selekzioarekin jokatzeko, besteak beste.

Hautaketak egin bezain laster, Askartzako Klaret eskolan —Bizkaian— kontzentratu ziren selekzioa deituriko jokalarik guztiak, abenduan. Lau egunez aritu ziren Pinillaren aginduetara entrenatzen, taktikak ikasten baina, batez ere,

Ohorezko mailatik, Euskal Seleizioara

Maider Lopez, Nerea Salazar eta Miriam Arana Euskal Seleizioarekin aritu dira; bigarren postua lortu du taldeak



Maider Lopez, Nerea Salazar eta Miriam Arana Tolosako kiroldegian. MADDI SOROA

MAIDER LOPEZ

«Guztia perfektua izan zedin, garaipena besterik ez zitzaigun falta izan; hala ere, oso gustura gaude»

Salazarrek esan bezala, «talde bezala ikasten eta entrenatzen aritu ginen».

Entrenamenduak, taktikak eta jokaldi mota ezberdinak landu zituzten nagusiki egun

NEREA SALAZAR

«Taldeen seriotasuna eta denon artean egindako lana izan da finalera iristeko txartela eman ziguna»

haietan. «Egin beharreko kaldiak ikasi genituen zehatz-mehatz», gogoratu zuen Aranak. Salazarrek, berriz, dio «gogor» aritu zirela lanean, eta «seriotasun hark eraman gin-

MIRIAM ARANA

«Lehenengo aldiz jokatu dut selekzioarekin eta titular moduan, gainera; beraz, oso gustura nago lortu dudanarekin»

tuen finalera», azpimarratu zuen.

Espainiako Erkidegoen arteko txapelketa bi zati ezberditan banatu zen. Lehenengo kanporaketan, Nafarroa, Mur-

tzia eta Katalunia izan zituen aurkari Euskal Seleizioak. Guztira, bederatzi gol sartzea eta bigarren faserako txartela eskuratu zituzten euskal jokalariek. Bigarren zatian, berriz, Aragoiren, Andaluziaren, Kataluniaren eta Madrilen aurka aritu zen selekzioa. Bikain aritu zen jokoan Euskadi, horren isla baita finalerako txartela lortu izana.

Madrilen aurka jokatu zuen finala Euskal Seleizioak. Lehenengo zatia, bi taldeen arteko norgehiagoka nahiko parekatua izan zen, bi taldeek izan zituztelarik gol aukerak. Bigarren zatian, ordea, zuzenago aritu zen Madrillgo taldea eta azkenean garaipena eskuratu zuen. Beraz, Euskal Seleizioa izan da 2005eko Espainiako Txapelketako txapelduorde eta Madril, berriz, garaile.

Esperientzia bikaina

Garaipenik lortu ez arren, Hegoaldeko hiru jokalariek oso pozik eta gustura etorri ziren etxera. «Taldea bikaina osatu genuen», eta hori «oso garrantzitsua» dela azaldu zuen Salazarrek. Aranak ere «jende asko ezagutu dut eta oso gustura aritu naiz entrenatzen eta baita jokatzen ere» gogoratu zuen, «giroa bikaina izan baitzen eta oso ongi pasa genuen guztiok».

Madrilen aurka jokaturiko finalaren harira, berriz, «irabazteko aukerak» zituztela azaldu zuen Lopezek. «Lehenengo zatia geurea izan zen ia guztiz». zioen Salazarrek, baina «bigarren zatian guri ez zitzaizkigun behar bezala irten gauzak; Madrilek, berriz, gol aukera guztiak aprobetxatu, eta gol bilakatu zituzten».

Garaipenik lortu ez arren, pozik eta irrifartsu agertu dira Hegoaldeko jokalariek, ezin baita ahantzi bigarren postua eskuratu dutela Euskal Seleizioarekin. «Garaipenik lortu ez arren, egindakoarekin gustura eta harro» daudela adierazi dute hiru jokalariek.

Zorionak Seleizioari!

POLIMEROEN INJENIERITZA

Ikasle bakoitzari ordenadore portatila emango zaio polimeroen injenieritzako goi mailako teknologian sakontzeko



Ateak zabalik

MARTXOAREN 17an 19:00etan

lea artibai
IKASTETXEA 2003

Euskadi

MURRAGON
INJENIERIA KONGERATUA

Xemein Etorbidea, 19. 48270 Markina-Xemein. Bizkaia Tf. 94 616 90 02 faxa. 94 616 91 60 www.leartik.com

PRESOAK ▶

Presoen borrokaldiari babesa emanez, bat egin dute errepidean

Guardia Zibilak identifikatu egin ditu protesta ekintzan ziren hainbat lagun, eta haien aurkako salaketa jarri duela esan

IRATXE ETXEBESTE

Euskal preso politikoak Espainiako eta Frantziako kartzelatan egiten ari diren borrokaldiarekin bat egin nahi izan zuten atzo eskualdeko herritarrek, eta N-1 errepidera irten zuten, dozenaka lagun, bakoitza Euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko banderola bana eskuetan. Gasteizerako norabidean eskualdea zeharkatzen duen bide osora hedatuz. Villabonatik Ikaztegiataraino bidean.

Eguerdirako egin zuten hitzordua, eta ordubetez aritu ziren euskal presoen eskubideak aldarrikatzen. HIRZAK Villabona eta Tolosa artean jardun zuen argazkiak ateratzen ekimena amaitzeaz zuten uneraino, eta ordura arte «inolako arazorik izan ez» zutela adierazi zioten Villabona aldean protestan ari zirenek. Tolosa parean zeudenek, berriz, «ertzainek, pasatzerakoan, filmatu» egin zituztela adierazi zuten. HIRZA bertan zirenekin hizketan ari zela heldu ziren eguerdiko ordubatak, eta amaitutzat eman zuten protesta ekintza antolatzaileek.

Aurrerago, baina, arazoak izan zituzten Alegiako sarrera eta Ikaztegiatiko irteera ingurukoek. «12:50 aldera Guardia Zibilaren patrol bat pasatu da, eta handik gutxira beste hiru agertu dira gu geunden tokira. Hamar lagun ginen inguru horretan, eta guztiok identifikatu gaituzte», azaldu diote HIRZARI puntu horretan euskal presoe- kiko elkartasuna adierazten

ari zirenek. «N-1 errepidetik kanpo genituen autoak gaizki aparkatuta genituela, eta horietako bakoitza norena zen esateko agindu digute lehendabizi, eta autoen datuak ere hartu dituzte».

Identifikatu zituztenen esanetan, «ez digute inongo momentuan esan legez kanpoko ekintzarik egiten ari ginenik, horrelakoetan ohikoa den moduan; bestelakoak ziren ematen zizkiguten argudioak: bazterbidea oztopatzen ari ginela, txalekorik gabe geundela, gidariak despistatzen ari ginela, errepidean ezin dela publizitate-terik egin...».

«Etorri direnean koaderno batean apuntatu dituzte gure datu guztiak, eta ondoren nor-tasun agiriak eskatu dizkigute. Patrolera joan dira guztion agiri-riekin, eta bertako helbideak eguneratuak ote dauden galdegin digute», zioten: «Datuak hartu ostean gure kontrako salaketak jarri dituztela esan digute, eta banderola bat eramanda, alde egin dute».

Gauza bera salatu dute Villabona inguruan zeuden beste bospasei lagunek ere. Behin protesta ekintza amaituta, herri aldera zihoazen bost lagun identifikatu zituen Guardia Zibilak Txermin auzoan, Ikastola pare horretan. 13:15 aldera gertatu zen hori haien esanetan, eta Alegia ingurukoek bezala, haiei ere nortasun agiriak eskatu zizkietela azaldu dute.

Tolosaldeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren deiarri erantzunez, errepidera euskal preso politikoaren eskubideak

defenditzera ateratzen zirenek gogor gaitzetsi dute Guardia Zibilaren jarrera, «delitu bat egin bagenu bezala» tratatzeagatik, batetik, eta kompetentzia hori polizia indar horri ez, baizik eta Ertzaintzari dagokiolarako, bestetik. Eta gaineratu dute: «Kusi beharko da zer gertatzen den salaketa horrekin».

Itxialdiaren azkenetan

Txandakako itxialdiarekin segitzen dute bienbitartean EPPK, Euskal Preso Politikoaren Kolektiboa osatzen dutenak. Eskualdeetatik, Lizartzako Koldo Alaña eta Aitor Agirrebarrena, Leizako Igor Astibia eta Villabonako Emilio Salaberria dira asteartea bitarte protesta ekintza horretan jarraituko dutenak. Txandaka-txandaka, EPPK-ko preso guztiak egin dute hamar eguneko itxialdia, batik batik, haien izaera politikoa aitor diezaieten exijitzeko eta haien oinarriko eskubideak aldarrikatzeko.

Urtarrilaren 3tik ari dira euskal presoak borrokaldi berri hori egiten, «Euskal Herrian abian den prozesu politikoan parte hartzeko dugun eskubidea aldarrikatzeko». Zazpi txandak bukatuta, hilaren 15ean amaituko duten itxialdiari beste protesta ekintza batekin emango diote jarraipena euskal preso politikoek. Asteazkenetik aurrera hamabi eguneko gose grebari ekingo diote denek. Hortaz, EPPK osoak, 700 presok baino gehiagok, baraualdia egingo dute martxoaren 16a eta 27a bitartean.



Euskal presoen Euskal Herriratzearen alde, atzo, errepidean. I. GARCIA

gure bizitzako **25** ASTE SANTURIK onena

Kolombinako ibilbidea 275€ Shantzu proiektuaren baliokidea
03/27tik 04/2ra (gaueko ibilbidea). Autobus, El Rocio Apartahutsa*** (Málaga-Cádiz), Del Mar hotela*** (Andaluzia), Marbella (osoa + Marbella ordea, BARRIK DAGOKI: URU-VARDIA (MARTALASCHEAS)) 45.756 Pta

Almeria 280€ Shantzu proiektuaren baliokidea
BOQUETAS DE MAR, 03/22tik 03/28ra (gaueko ibilbidea). Autobus, Reptorio hotela***, Marbella (osoa). 46.588 Pta

Lisboa 265€ Shantzu proiektuaren baliokidea
03/22tik 03/28ra (gaueko ibilbidea). Autobus, Zurique hotela***, Gasteiz (osoa). 44.092 Pta

Paris-Futuroscope 264€ Shantzu proiektuaren baliokidea
03/22tik 03/28ra (gaueko ibilbidea). Autobus, hotela***, Gasteiz (osoa). PARIS IKUSTIA BARRIK, NAUKI BARRIK, FUTUROSCOPEO SARRERA. 43.926 Pta

Mallorca 297€ Shantzu proiektuaren baliokidea
03/24tik 03/28ra, Negandina, Horizonte hotela***, Gasteiz (osoa). NAUKI BARRIK, JOAN-ETORRIK. 49.417 Pta

Londres 489€ Shantzu proiektuaren baliokidea
03/24tik 03/28ra, Negandina Bideak, Turista hotela, Gasteiz (osoa). 81.363 Pta



EROSKI viajes

merezi duzu

www.viajeseroski.es

OBRARAKO 'LEHEN MAILAKO OFIZIALA' behar da
650 713 608

korrikarekin
Baliarraingoa Udala

KONTSU TABERNA (OREXA)
Ostiral gauetik igande gaua arte asteburuko menua **12 €**
Telf.: 943 68 21 54

ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA
USURBIL
Tel.:

BEGIRISTAIN
tolare sagardotegia
tel.: 943 65 28 37 / 607 36 57 43 • Iturriotz baserria 20267 Ikaztegieta

- Afariak: astelehenetik larunbatera
- Bazkariak: osteguna, ostirala eta larunbata
- Inauterietan: astelehena, asteartea eta asteazkenean bazkariak emango dira

TOLOSA ▶ MUSIKA

Jendetza bildu zuen Benito Lertxundik

Zuzeneko diskorako baliatuko du kontzertua

I. TERRADILLOS

Jendez lepo ageri zen Tolosako Leidor aretoa ostiral gauean, izan ere, Benito Lertxundiren kontzertuaz gozatzeko asmoz hurbildu ziren hitzordura.

Kontzertua berezia izan zen, bertan kantaturiko abestiak udazkenean kaleratuko duen *Benito Lertxundi zuzenean* diskorako erabiliko baititu Orion eta Gernikan abestutakoekin bezala. Eta Leidorren kantatzeko aukeratu zituen abestien in-

guruan denetarik entzun zela esan daiteke, betikoak eta *Nere ekialdean* izeneko azken diskoko kantuak entzun baitziren.

Horien artean, Jon Maiak Lertxundik abestuak izateko egin zituen bertsoak eta gai bezala itsasoa dutenak bereziak izan ziren. Abeslariak azaldu zuenez, itsasoari begira egoten den horietakoa da bera, eta, beraz, gaia ere bat zetorren berarekin. Era berean, Itoitz-ko urtegia buruan zuela idatzitako



Benito Lertxundi ostiral gaueko kontzertuan, Leidorren. I. TERRADILLOS

abestiak ere protagonismo berezia hartu zuen.

Leidor aretoan zeudenek izan zuten baita ere abesteko aukera: bere azken diskoko *Zergatik utzi kantatzeari* izeneko abestiarekin, hain zuzen ere. Abesti honen egile den Pete Seeger aipatu zuen une horretan oriotarrak, harekiko duen miresmena azalduz. Une berezia bezain polita izan zen hura.

Kontzertuaren azken txanpan Leidor aretoaren eszenatokia agerraldia egin zuten Etxerat elkarteok, eskualdeko presoen argazkiak eskutian, Lertxundik abesten zuen bitartean.

Bi ordu pasatxo eta gero Leidor aretotik irteteko unea iritsi zen; arpegien eta entzuten zenaren arabera, gustura bueltatu zen jendea etxera.

INGURUMENA ▶

Haur ugari bildu dira zuhaitz landaketan

Oria gaineko zubi berritik herri muinoraino doan ibilbidean landatu zituzten zuhaixkak Irurako haurrek

IMANOL GARCIA

Iruran haur ugari azaldu ziren Zuhaitz Eguneko ekitaldira. Ehun bat izango ziren, gurasoek lagunduta, Udalak antolatutako zuhaitz landaketara bildutakoak. Oria gaineko zubi berritik herri muinora doan ibilbide berrian egin zituzten landaketak. Guztira, 300 bat metroko lerroan landatu dituzte. Orain urtebete inguru amaitu zituzten Oria ibaiko lanen ondoren, hiru metroko belar-ibilbidea osatu da, ondoko soroak baino altuago.

Ezpela, *photinia*, *forsitia* eta *cydonia* izeneko zuhaixkak landatu zituzten. Ibilbidean la-

nen ondoren landatutako zuhaitzen artean jarri zituzten haurrek zuhaixkak. Askorentzat lehenengo aldia izango zen atxurra edo pala hartzen zutena. Gogoz ekin zioten zuloak egiteari, batzuk banaka, beste batzuk binaka edo taldeetan, atxurra eskutik eskura pasatuz. Bazegoen lurra gogor samar zegoen lekurik ere, edo harri mordoia topatzen zutenik, baina, hala ere, atxurrari bizi eragiten zioten. Ondoren, traktore batetik banatzen zizkieten landareak zuloan jarri, eta txukun-txukun ekiten zioten aurretik ateratako lurra bere lekura bueltatzeari.

Eguraldia lagun izan zuten

arratsalde guztian, eta, horrela, ariketaren ondoren parte-hartzaileek zain zuten merienda plazan bertan jan ahal izan zuten.

Leaburun, bihar

Leaburun ere Zuhaitz Eguna antolatu zuten atzarako, baina zuhaitz landaketa egiteko deialdira ez zen jenderik azaldu. Horregatik, Udaleko langileek bihar landatuko dituzte prestatuta zituzten 50 urkiak. Depositu bidean landatuko dituzte. Aurretik, horretarako dauden diru laguntzez baliatuz, koadrila batek mendi zati hori garbitu zuen.



Ahaleginean aritu ziren haurrak atxurra eskuan zutela. I. GARCIA

Ordu txikietan,
korrika txikian
euskararen alde



Tolosako Udala

Euskara Batzordea

VILLABONAKO
UDALA



korrikarekin bat

 uribe

San Frantzisko 25 • TOLOSA
Tel/faxa: 943 65 55 15
mug.: 626 636 138

Tolosa.
Bizkai kalea-Sputnik Duplexa, 86 m2.
Sukaldea, egongela, 3 logela, bainugela,
bainua, Eguzkitsua, alaia, argi asko. 2
trasteleku eta gainera komunitatearen
terrazza.

Tolosa.
Laskorain kalea. 77m2-ko etxebizitza
polita. Sudaldea-jantokia-egongela, 2
logela, bainugela, despentsa. Berogailua
gasarekin. Egoera ezin hobea.
264.445 euro.

TOLOSA ▶

Eguzkia lagun azokan, eta bizitasuna erakustokietan

Eguraldi onak bisitari asko erakarri zituen azokara; hobetuz eta berrituz doa eskaintza

PABLO ALBERDI

Eguraldi onak erakarritu, bisitari gehiago etorri ziren azokara atzo. Giro aparta izan zen, gainera, eta erakustokietako bizitasuna oso bestelakoa izan zen, joan den astearekin alderatuz. Eskaintzan ere izan zuten eraginik eguzkiak eta epeltasunak. Barazki askok eskertu egiten dute eguraldi aldaketa: porruak, azenarioek, azelgek, borraiek, letxuek eta kalabazek, besteak beste, oso itxura ona zuten. Gazta berriaren eskaintza zabalera ere aipatzeakoa da. Eguraldi onak jarraitzen badu, laster hasiko dira Berdura plazako berrikuntzak: apaingarriko landare berriak eta udaberriko landareak iristear dira.

ATZOKO AZOKA ▶

Berdura Plaza merk.	gares.
Insignis pinua	0,17 -
Klabelin txikia	3,6 -
Ziklamena	3,5 6
Xarbota	4 6

Bertako produktukoak

Gezi sagarra	4	5
Tolosako babarr.	8	12
Kalabaza	1,5	3
Porrua	2	5
Letxua	1	1,25
Arrautzak	1,3	2,1
Irasagarra	3	6
Ardi gazta	12	14
Behi gazta	7	7,5

Produktu ekologikoak

Inbaurra	4	6
Arroza	1,9	2
Tipula	1,75	2
Aza	2,5	3
Ahuntz gazta	3	-
Behi gazta	10	11

iragarki laburrak ▶

Peoiak. Plaza libreak Hernani, Arrasate, Araman, Errenteria, Antzuola, Zerain, Mendaro eta Villabonan. 943 65 01 93.
Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza libreak: ikastebeak, egoitzak, Eusko Jaurilaritza. Informatu. 943 65 01 93

LEITZA ▶ POLITIKA



Aralar eta EA-ko zinegotziek emandako botoekin onartu zen euren proposamena. HITZA

Ikurrina ez dute jarriko udaletxean, «herri borondatearen kontra»

Aralar-ek eta EA-k aurkeztutako mozioa atera zen aurrera; Larrainek aurkeztutakoan, berriz, abstentzioa nagusitu zen

IMANOL GARCIA
IÑIGO TERRADILLOS

Leitzako udaletxeko balkoian ez da ageri ikurrina pasa den hilabetean kendu zutenetik. Horregatik, eta «leitzar gehienek berriro jartzea nahi dutelako», ikurrina jarri edo ez jarri eztabaidatu zuten ostiralean udaletxeko aretoan egin zuten bilkuran.

Horrela, Larrain herri plataformak aurkeztutako mozioan herriaren borondatea errespetatzea eta ikurrina udaletxeko balkoian jartzea proposatzen zen. Aralar-ek eta EA-k aurkeztutako mozioan, aldiz, Nafarroako Gobernuko presidenteari eta parlamentuko taldeei salaketa proposamena igortzea, Leitzako sarreretan azpian ikurrina duela *Leitza Euskal Herria* da lelopean kartela jartzea eta herriko plazan ikurrina eta Leitzako eta Nafarroako ikurrak jartzea proposatu zen.

Egin beharreko bozka egin da, azken hau onartu zen Aralar-ekoen eta EA-koen botoekin; Larrain-en mozioan, berriz, 5 abstentzio izan ziren eta UPN-ek, ohikoa den bezala, ez zuen bozkatu. Aralar-ekoek eta EA-koek azaldu zuten, «ikurrina kentzera behartu gaituzte Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Auzitegiak. Hala ere, agindu honen aurka gure salaketa eta gaitzespen sendoan adierazi nahi ditugu».

Larrain herri plataformak ikurrina balkoian ez mantentzeko erabakia «pertsonala eta politikoa» dela adierazi zion Patxi Sainz alkateari. Era berean, ez dela egia behartuta hartu duela erabakia, eta dimititzeko aukera ere baduela esan zioten. «Herriak hala eskatu arren, borondate gutxi eta jarri iritziak» erakutsi duela, eta erabaki hori UPN-ek hartuko balu «min gutxiago» egingo lukeela azaldu du Larrainek.



Ikurrina balkoian jarri zuten. HITZA

Jende asko agertu zen udal-etxera euren «haserre eta desadostasuna» adieraztera. Bilkura bukatu ostean zintzilik ikus zitekeen ikurrina udaletxean. Herritar batzuek jarri zuten gainerakoak bilduta jarraitzen zuten bitartean, baina atzo goizerako ez zen ageri. Udaletik kentzeko agindua eman zutelako.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 69 24 23
- Baliarrain.** Medikua: 88 90 03
- Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarralde.** Osasun etx.: 672411
- Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29
- Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Lizartza.** Medikua: 68 20 77
- Orendain.** Medikua: 65 55 95
- Orexa.** Medikua: 68 22 28
- Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 00 68 00
 - ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 - ▶ Amarozk disp.: 67 26 37
 - ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
 - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 - ▶ Tolargi: 65 00 16
 - ▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25
 - ▶ DYA: 67 25 36
 - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 - ▶ Ertzaintza: 53 88 20
 - ▶ Tolosa gasa: 67 53 20
- Villabona-Aiztondo.** Anbulategia.: 00 69 70
- Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Tolosaldea bus: 65 06 21
- ▶ Leitza autob.: 948 631885
- ▶ Taxia: 67 04 20
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

- ▶ Galtzaundi: 65 50 04
- ▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
- ▶ Tipi ttapi ald.: 948 631888
- ▶ Txolarre Irratia: 69 80 38
- ▶ Karrape Irratia: 948 610914

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur.** Olarreaga, A. Korreo kalea 2 (Tolosa). 943 67 01 28
- Larraia, M.I. Elbarren 5 (Leitza). 112
- Bihar.** Iturrioz, I. Euskal Herria 3 (Ibarra). 943 67 09 15
- Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

- Publizitatea.** 661 67 88 18.
- tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info
- Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
- tolosa@tolosaldeko-hitza.info
- Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.
- villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
- Anoeta.** 687 41 00 22
- anoeta@tolosaldeko-hitza.info
- Ibarralde.** 687 41 00 32.
- ibarralde@tolosaldeko-hitza.info
- Alegialdea.** 687 41 00 34.
- alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
- Leitzalde.** 687 41 01 18.
- leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko martxoaren 13a, igandea ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzola, Aduna, Abatuz, Ajeja, Aliza, Alzu, Ameketa, Ansoa, Arca, Balmara, Belduza, Berrogo, Berrota, Etxauri, Herrialde, Ibarra, Itxegileta, Irua, Lizarra, Leizola, Lizartza, Orendain, Orosa, Tolosa, Villabona, Zazpi
besteri: Leizaldeko Euzkara Batazkoa

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila

943
ARRETA ZENBAKIA
(Zalantzak, harpide egiteko...)

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsalde



beroena

10

hotzena

05

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsalde



ELURRA ARALARREN

Guardetxe: bai

Albi: bai

Pagomari: bai

Igaratza: bai

HITZA-KO BEZERÖEN ARRETA ZENBAKIA

(Zalantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Gaztelu. Tutoreak bisita egingo du herrira bihar. *Prestatu zure platerak* izango da gaia, 16:00etatik 20:00etara. Izena emateko deitu 943 65 37 20 zenbakira (Ainara).

Irura. Familia ugarietako IBI kuotako laguntzak eskatzeko epea zabalik du Udalak hilaren 18a bitarte. Udaletxean, asteleheneetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara eska daitezke.

Leizta. EPPK egiten ari den txandakako ibialdiarekin, eta, batez ere, herriko presio Igor Astibiarekin bat egiteko manifestazioa, herriko plazatik aterata, 13:00etan.

Tolosa. Gazte Topagunea izango da 16:30etik 20:30era Kultur Etxean. Zinema emanaldia izango dute, besteak beste.

Tolosa. Oargi elkarteak mendi marxa antolatu du Boi haranera (Pirinioak, Lleida) hilaren 24tik 28ra, Aste Santuko oporretan. Izen-ematea lehenbailehen egin behar da 637 83 03 80 telefono zenbakian.

Tolosa. Gerontologikoaren inguruko bilera izango da bihar, 19:00etan, Kultur Etxean. Orain arteko eta aurrera begirako ekintzei buruz ariko dira. Batzarra irekia da herritar guztientzat.

KORRIKA 2005

Alto. Korrikarako dirua biltzeko mahai bat jarriko dute eguerdian, herriko plazan, materiala saltzeko.

Leizta. 03:30ean helduko da KORRIKA herrira. Goizueta aldetik etorri eta Uitz aldera joanez zeharkatuko du herria.

Tolosa. Korrika Laguntzaile egiteko txartelak salgai daude Raku, Elurra eta Laier tabernetan eta Kopi-bat dendan 12 eurotan. Pin bat eta txartela jasoko dute laguntzaile egiten direnek. Euskal Herriko 300 denda baino gehiagotan beharpenak izango dituzte.

ZINEMA

Tolosa. *Largo domingo de noviazgo.* 15:00etan, 19:30ean eta 22:30ean. *Bihar eta etzi* (Ikuslearen Eguna), 19:30ean eta 22:30ean, Leidor zineman.

Mundua aldrebesturik?

IBARRA ▶ Urtero bezala, Uzturpe ikastolakoek sortutako jaialdia izan zen ikusgai ostiral gauean; 'Mundua Aldrebes' izan da aurtengoaren leloa



Pixama jantzita Maria Isabel eta bere *Antes muerta que sencilla* antzeztu zuten Uzturpeko ikasleek. I.T.



Bertso saio xelebreak izan ziren entzungai eta ezohiko egoerak ikusi ahal izan ziren, besteak beste. I.T.



IÑIGO TERRADILLOS

Nahasturik, aldrebesturik, hankazgora, txuria dena beltza, hemen behar zuena han... azken batean. *Mundua aldrebes*-turik erakutsi zuten Uzturpe ikastolako ikasleek ostiral gauean egin zuten urteroko jaialdian.

Era guztietako dantzak, antzerkiak, bertso saioak ikusi ahal izan ziren, hori bai, xelebrekeria puntu batez jantzerik. Ikusi ahal izan zirenen artean, bertso saio bereziak dantzarekin hornituak, elur panpinaren inguruko dantza bitxia, hankazgora zebiltzanak, txirinduaren gainean eserita ordez zutik zebiltzan amonak, euren atean gola sartzen zuten hockey jokalarikuri osoak, tenisean bizkarrez jokatzeko zutenak, batearekin asmatzen ez zuten beisbol jokalaria, Maria Isabel pixamaz jantzita, saririk banatu ezinean ibili zen azafata...

Barre algarak entzun ziren ekitaldi osoan zehar; Belabieta kiroldegira gerturatu zirenek ederki asko igaro zuten seinale. Eta merezitako txalo zaparradak jaso zituzten lan polita eskaini zuten Uzturpe ikastolako artista txiki, handiek.

ZORION AGURRAK ▶



AITOR

Besarkada bero bat, eutsi gozokor.

Joxe Mari, Kontxuelo, Joseba, Elena, Gorka eta Eneritzek.



AUPA, IGOR!

Zaren bezain bizkorra eta alai seiltu. Zurekin gaude. Muxu bat. Osaba-izebak.




AUPA EMILIO!

Jarratu pultsera politik egiten! Muxu handi bat. Maria Jesus eta familia osoa



AUPA HIKIE!

Txidokin elurre eta hor ere ez da giro izango, baina, lasai, borrorak berotuko dizkiz bazterrak ta. Borroka da bide bakarra! Askatasun Haizea.



AITOR ETA KOLDO

Lizartza Otsolar dantza taldeak besarkada beroa baldizten dizue Villanubla eta Val d'Revil espesbetara. Etxean nahi zaituztegu!



HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeko, urrezko etzeak, ezkontzak, jaioberriak... zoriantzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila eskertu!